

BBK-k Guggenheim Bilbao Museoari ematen dion babes estrategikoa berritu du, artea gizartera gerturatzeko

- Datozen bost urteotan BBK-k 750.000 euro emango dizkio Museoari, urteko. Babes horren xedea proiektu kultural eta sozialak izango dira; interes orokorrekoak zein gizatalde ahulenei zuzendurikoak.
- 1997tik, Museoa eta BBK-ren arteko lankidetzak hasi zenean, 8 milioi pertsona baino gehiagok BBK-k sustaturiko ekimenez gozatu dute.
- BBK-k arte eta kultura sustatzeko helburuarekin ematen duen babesaren ardatzak hauek dira: bisitariaren esperientzia hobetu eta artearen ulermena errazten duten zerbitzuak, gidaridun bisitaldiak eta entzuteko gidak edo hartzaile bereziei (haurrak eta helduak, esaterako) eskainiriko programa zehatzak.

Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioko Batzorde Betearazlearen Buru Unai Rementeriak, BBK-ko Presidente Xabier Sagredok eta Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusi Juan Ignacio Vidartek Lankidetzak Hitzarmenaren berritzea sinatu dute gaur goizean. Horren arabera Museoaren Babesle Estrategikoa den BBK-k 750.000 euroko ekarpena egingo dio Museoari urteko, datozen bost urteotan, Guggenheim Bilbao Museoaren proiektu orokorren eta baita aipatu bi fundazioen partaidetza dituzten proiektu berezien garapenerako ere.

BBK-k 1997an Babesle Estrategiko gisa sinatu zuen lehen lankidetzak-hitzarmenetik 8 milioi pertsona baino gehiagok izan dute gizatalde ezberdinei zuzenduriko programa zehatzez eta artea eta Museoaren erakusketak gizarteratzeko BBK-k finantzatu dituen bisitariarentzako zerbitzu eta bitarteko ezberdinez gozatzeko aukera. Honela, Bilboko eta Bizkaiko erakarpen turistikoa areagotu eta, finean, Museoaren eragin ekonomikoa sustatu da.

Museoaren Babesle Estrategikoa den heinean, BBK-k inplikazio zuzena izan du bere kudeaketan, Batzorde Betearazlean eta Patronatuan parte hartuz. Era berean, jarduera zehatzak finantzatu ditu, xede duten hartzaileengatik beren kabuz finantzatzen ez diren jarduerak bereziki.

Sinaturiko hitzarmenaren helburu nagusietako bat da **gizarte- eta kultura-kohesioa sustatzea**, Bizkaiko **gizartearen garapenera** mesedetan. Horretarako, interes orokorreko zein gizatalde ahulenei zuzenduriko proiektu ezberdinak sustatuko dira. Era berean, proiektu berritzaile eta sortzaileei eskainitako babesaren bidez, arte garaikidearen ezagutza eta ulermena hedatu eta gizarteratu nahi da.

Zenbait proiektu

BBK-k txikiei zuzenduriko heziketa-jarduerak babesten ditu, artearen bidez ikas eta goza dezaten, bai beren eskola-prestakuntzaren baitan bai beren etxean ere, Museoa bisitatu eta gero. Zentzu horretan, **Artea ikasbide** ekimen arrakastatsua babesten jarraituko du BBK-k. Izan ere, *Artea ikasbide* egitarauak Euskal Herriko Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoetako eskola-curriculumaren ikasgaiak osatu ditu azken hamabost urteotan, artea eta sorkuntza artistikoari buruzko solasaldien eta artista eta Museoko hezitzaileekin gauzaturiko lantaldeko sormen-jardueren bidez. Erakusketa bat egiten da urtero programa itxi eta ikasleek ikasturte amaieran garatu dituzten lan artistikoak erakusteko. Aurtengo erakusketa irailak 20 arte egongo da ikusgai Museoaren heziketa gunean.

Bestalde, BBK-k babesten duen **Artez busti** ekimenak erakusketen ulermena errazten dituzten zerbitzu eta baliabideak jartzen ditu bisitarien esku: doako entzuteko gidak, gidaridun bisitaldiak, informazio-baliabideak, gune didaktikoak eta Smartphonetarako aplikazioak. Horiei esker, bisitariaren esperientzia aberatsagoa da eta haien gozamina eta atxikimendua areagotzen da.

BBK-k eta Guggenheim Bilbao Museoak ModernizARTE programa abiarazi dute ere. Museoak diseinatu duen egitarau honen jomuga da BBK-k kudeatzen dituen helduentzako zentroetara XX. eta XXI. mendetako artea eramatea, museoaren programazio artistikoa osatzen duten erakusketekin zerikusia duten gaiak jorratuz. Lan-metodologia dinamikoa eta erakargarria aplikatuz, gaian aditu diren pertsona ezberdinek paisaia, erretratua, argazkigintza, bideogintza, arkitektura edo eskulturarekin loturiko kontzeptu artistikoak edo, esaterako, kubismoaren edo mende hasierako artearen gakoak azaltzen dizkiete, urtero, 60 urtetik gorako pertsonei.

BBK-ren lankidetzak estrategikoak gizarte-lana egitea du helburu ere, Museoa gizatalde ahulenetara gerturatuz. Honela, BBK-ren babesak zenbait gizarte-ekimen ahalbidetzen ditu: **urritasunen bat dutenentzako eta gizatalde ahulenentzako gidaridun bisitaldiak edo Basurto eta Gurutzetako ospitaletako haurrentzako unitateekin batera antolatzen diren ekimenak.**

Azkenik, sinatutako hitzarmenari esker ekitaldi soziokulturalak garatu ahal izango dira artea gizarte guztira hedatu ahal izateko era inspiratzaile eta erakargarri batean. Horien artean nabarmentzekoak dira **Gabonetako haur tailerrak** edo **BBK Jazz Guggenheim Gauak** ekitaldia: azken horretan Museoak gauez irekitzen du ere, Aste Nagusian zehar, zuzeneko jazz kontzertuak eskaini eta jai-egitarauaren eskaintza kultural eta soziala osatzeko.

Bilbo, 2015eko uztailak 16

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.es webgunean daukazu eskuragarri (prentsa eremua).